

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Usetxi.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Usetxi.

- 2205 *Aize egoa, andren gogoa.*  
Beste nonbait berdintsu: "Emazteen gogoa iduri hegoa".
- 2206 *Andik apur, emendik apur, eultzia bete dugu zuzen edo makur.*  
Besteri ebatsiz bizi zirenak esan zuten ori. Eultzia, ultzia = larrañean bildurik dagoen garipilla, an garia jo ta pikorra berexteko.
- 2207 *An ere txakurrak ortotsik.*  
Galtza zarrak nonnai izaten.
- 2208 *Agoteko atsoak pas(a)tuko tuzie (dituzue).*  
Aiek baño berritsuago, itzontziago izango zerate.
- 2209 *Atzeko laakua yo ta gelditu.*  
Ler gaizto egiñik gelditu, nekaurraturik.
- 2211 *Au ere ez duk leku batean gelditzekoa, ez.*  
Iñon laketzen, etsitzen ez duena da.
- 2212 *Aztutik ezautuko 'uk gizen dagon.*  
Aztutik = pisutik. txarrez esana.
- 2213 *Batek kanta, bertziak kanta: deabruek dantza.*  
Dantza luzegi edo
- 2214 *Batzuetan baiian (galbaian) ure, ta ferratan ez.*  
Etxean itzik ezin aterazi, eta kanpoan ezin ixildu.
- 2215 *Bazter guziek iretsi nai tuen merkola da ori.*  
Deusek ere asetzen ez duena.
- 2216 *Bein be(de)ren! Arre-ko ezkillak erran zuen.*  
Noizpait ere!
- 2217 *Eguberri zerekin, Urteberri arekin.*  
Asteko zein egunetan Eguberri, asteko egun berean Urteberri.
- 2218 *Erbie lotan ortxe dago!*  
Lapur ori ez daukazu arrapaturik!

- 2220 *Erio suar dago.*  
Ez-egitekoen bat egiteko zorian dago.
- 2222 *Esne guti ta erreto aunitz.*  
Zuen pixka galduz zijoala.
- 2223 *Euki dogun gutxi, euki dogun beti.*  
Dugun pixka gorde dezagun. Ez dirudi Esteribarko esaera... Beste nonbait obekiago noski: Dugun guti, dugun beti.
- 2224 *Ez dio sakeleko odolak irakiñen, ez.*  
Ez da estutuko, lasaia da.
- 2225 *Ezta piru (b)at ere ez dut.*  
Piru bat = ari puxka bat; txanpon bat ere ez dut.
- 2230 *Guk bear dugularik, ubaldian ez da urik.*  
Gure bear-orduan, iñork ez laguntzen.
- 2231 *Gure etxean Pittiri sartu da.*  
Pittiri = gosea; garia ta iriña akitu, bukatu.
- 2234 *Itxea gaiñez, eta guziak iretsi naiez.*  
Etxean guzia izan, ta alere bazterrak iretsi nai.
- 2234b *Kuli-mulike zabilzate?*  
Zer egin ez dakizuela, edo lan gutxirekin.
- 2235 *Lekeda baño etxekarriagoa da ori.*  
Etxeki = itsatsi; etxekarria = itsaskorra; paperak eta itsasteko erabiltzen den lekeda (goma) bezela.
- 2237 *Norata iguzki, arata beroki.*
- 2238 *Norata ezkurre, arata txerrien muturre.*  
Jendeak bezela txerriak ere bizigarria den tokira nai.
- 2239 *Odei (edo goibel) oiek leokatu(r)ik daude, ta ez da euririk.*  
Odeiak berex samar daude, le(i)okaturik, tartetan leio antzeko utsuneak dituzte.
- 2240 *Olabe-ko idi-saltzaleak esana: Idi au duk, otzendako otz-bera, idorreindako gorbera; idi au ez daila (dedilla) itzul yagoko(r)ik Olabe-ra.*  
Otzendako otz-bera bezela, beroendako gorbera, beroa ezin yasan duena.

- 2241 *Ongi mendekaturik dauke yaten duena.*  
Ongi irabazia, bere lanaz.
- 2242 *Orrek mii altzairerue du.*  
Mingain zorrotza, mintzo gogor bizia.
- 2243 *Orrek miie bere lekuen du.*  
Mintzaira garbi ta argia du, garbi mintzo da.
- 2244 *San Juan eta San Pedro, astero balego! Ta Ama Birjina urriko? Iñoiz ez al duk etorriko!*  
Pesta-zale zikoitzak esana. Urria = Irailla, buruila (septiembre).
- 2245 *San Luk, erein zak balin ba'uk (baduk). Billa zak ez balinba-uk.*
- 2246 *Txindor idorrik ez du ekarri.*  
Pits legorrik ez du ekarri.
- 2247 *Xau dire Uritz-en, karakolen biltzeko ez badiote euritzen.*  
Xau dire = akabo dire. Uritz = Artzibarko erri koxkorra (valle de Arce).
- 2248 *Zoaz ardit-ardite ta ekartzu.*  
Zoaz arin baño ariñago.
- 2249 *Zure galtza-kordak izain du korapillo ori.*  
Naspilla ori ez al da zure etzekoa, ta ez gurea edo bestena?